

BIKREPAR 5000-300ER



Produktuarens deskribapena

- Egiturak konpontzeko osagai bakarreko mortero grisa, zementuz, hautatutako granulometriako kareharriz, gehigarri kimikoz, zuntzez eta polimeroz egina

Ezaugarriak

- R3 mota UNE-EN 1504-3 arauaren arabera
- Erraztasunez erabiltzeko mortero tixotropikoa
- Hormigoiarekiko itsaspen haundia
- Erresistentzia mekaniko handiak
- Buztian eskuz edo mekanikoki aplikatu daiteke
- Suarekiko sailkapena A1
- Barrualdean zein kaponaldean erabilgarria

Erabilera

- Geruza lodian, hormigoizko elementuak konpontzeko, hala nola balkoein ertzak, habeak, pilareak, sabaiak, fatsadak, hormak, eskaikerak, pieza prefabrikatuak..
- Hormigoizko elementu prefabrikatuen junturak hartzeko.
- Eremu handietarako zein konponketa txikietarako egokia
- Azalera bertikaletarako zein sabaietarako egokia.
- Geruza bakoitzerako gomentatutako aplikazio-lodierak:

Aplikazio bertikalak	10 - 30 mm.
Aplikazio horizontalak	10 - 50 mm.

- Aplikazio lodiera handiagoak behar direnean, segidako geruzetan egingo dira, geruza bakoitzean aurrekoaren mugak errezpetatuz.
- UNE-EN 1504-9 arauaren arabera, honako konponketa-printzipio hauek betetzen ditu:
 - ☒ Hormigoia lehengoratzea, morteroa eskuz edo proiektzio bidez aplikatuz (3. Printzikioa, 3.1 y 3.3 Metodoak).
 - ☒ Hormigoiaren egitura sendotzea morteroa gehituz (4. Printzipioa 4.4 Metodoa).
 - ☒ Pasibitatea kontserbatzea edo lehengoratzea, armadura mortero gehigarri estaltzeagatik edo hormigoi kutsatua/karbonatua ordeztzeagatik (7. Printzipioa 7.1 y 7.2 Metodoak).

Beste erabilera batzuk

- BIKREPAR 5000-300ER, hormigoiaren eta BIKREV zarpiatze-morteroen arteko lotura-geruza gisa ere erabil daiteke.
- Kasu honetan, hautsez, olioaz, koipez eta abarrez garbi dagoen hormigoiaren gainean, zuzenean BIKREPARaren lehen geruza bat aplikatu, eta, gero, gogortu ondoren, zarpiatzeko morteroa aplikatu.

Arreta-neurriak

- Erabili beharreko produktua euskarri motarako eta egingo den lan motarako egokia dela egiaztatzea.
- Produktua gomendatutako ur kantitatearekin oratzea beti. Ez ber-oratu ezta zementu, kareharri edo gehigarri kimikorik gehitu.
- Produktua aplikatzean, giro-tenperaturak 5° C eta 35° C artekoa izan behar du.
- Ez erabili euskarri hidrofugatueta, igeltsu edo plastikozko estalduretan. Ez erabiki inoiz gainazal izoztuegan.
- Tresnak eta erremintak erabili eta berehala garbitzea. Produktua gogortu ondoren, hondakinak bitarteko mekanikoen bidez bakarrik ezabatu ahal izango dira.
- Saihestu ahautsa arnastea eta oratutako produktuak larruazala eta begiak ukitzea. Informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu dagokion segurtasun-datuaren orria.

Hornidura

- 20 eta 24 m³ edukierako siloetan, obretan zisterna kamioien bidez betetzen direnak.
- Siloek produktua automatikoki eta etengabe jasotzeko ekipoak izan ditzakete, obra-beharren arabera.
- 25 kg-ko paper-zakuetan. Paletizazioa: 60 zaku/palet (1500 kg)
- Hornidura, indarrean dauden Kontratazio Baldintza Orokorren arabera arautuko da beti.

Biltegiatzea

- Siloan bermatuta dago produktuak bere ezaugarriak bere horretan mantentzen dituela fabrikazio-datatik aurrera, bi hilabetez
- Zakuetan bermatzen da produktuak bere ezaugarriak bere horretan mantentzen dituela urtebetez, fabrikazio-datatik aurrera, betiere leku estali eta lehorrean kontserbatzen bada.

Arauk

Produktuaren CE marka, Eraikuntzako Produktuen Europako Erregelamenduarena arabera.

 0099	
Morteros y Revocos BIKAIN, S.A. Aldebarrena Auzoa nº 18 48212 (Mañaria)-Bizkaia 14 Nº DdP : MRH1	
EN 1504-3 BIKREPAR 5000-300ER Hormigoiaaren egitura konpontzeko produktua PCC morteroarekin (zementu hidrauliko polimerizatuz egina)	
Konpresioarekiko erresistentzia:	Ö30 MPa (R3 mota)
Kloruroen edukia:	% Ö0,05
Itsastea:	Ö1,5 MPa
Karbonatazioarekiko erresistentzia	Pasa
Xurgapena:	Ö0,5 kg/m ² .min ^{0,5}
Elastikotasun modulua:	Ö15 GPa
Bateragarritasun termikoa: 1 Atala:	Ö1,5 MPa
Substantzia arriskutsuak	5.4 atalaren arabera
Suarekiko erreakzioa:	A1 mota

Beste ezaugarri tekniko batzuk

- **Itxura:** Hauts grisa
- **Granulometria:** 0-2mm
- **Nahasketaren bizi-denbora (20°C-tara):**
..... 30 minutu (eguraldi-balditzen arabera).
- **Freskoan itxurazko dentsitatea (UNE-EN 1015-6):**
..... 1,9±0,1(gr/zm³)
- **Uraren % (175±10 mm-ko trinkotasuna UNE-EN 1015-3):** 18-19%
- **Errendimendu teorikoa :** 1,7 kg/m² y mm-ko lodiera
- **Muga-zergen partida:** 3824.50.90.00

Erabiltzeko modua

Euskarriaren prestaketa

- Hormigoizko euskarriak erresistentea eta zimurtsua izan behar du.
- Teknika egokiak erabiliz (eskuilatzea, lurrun-zurrusta), hautsa, material ahula edo hondatua, olioak, koipeak, pinturak, oxido-orbanak eta, oro har, beste edozein substantzia kutsagarri ezabatu egin behar

- Behar izanez gero, ahal dela bitarteko mekanikoak erabiliz, euskarria prestatu hormigoi osasuntsua agerian utzi arte.
- Oxidazioa duten armadurak agerian utzi behar dira, oxido-geruza osoa kenduz baita atzealdetik ere. Amaitzeko, hondarrak haize konprimatuarekin kendu behar dira
- Ondoren, armadura garbien gainean, korrosioaren aurkako inprimazio babeslea aplikatzen da, armaduraren gainazal guztia estaltzen dala ziurtatuz.
- Prestaketa horren ondoren, hormigoizko euskarriak ur garbiarekin ondo busti behar dira, eta itxura matea hartzen duenean morteroa aplikatzen hasi daiteke.

Produktuaren nahasketa eta aplikazioa

- Mortero hautsa urarekin nahastu (4,5 ñ 4,75 litro, gutxi gorabehera, zaku bakoitzeko), ahal dela tresna mekanikoen bidez (adibidez, abiadura txikiko irabiagailu elektriko batekin), trinkotasun oretsu eta homogeneoa hartu arte, pikorrik gabea
- Morteroa gainazalaren eta armaduraren inguruan indarrez trinkotuz aplikatu.
- Aplikazioaren gutxieneko lodiera 10 mm-koa da.
- Aurreko mortero-geruzaren gainean mortero-geruza bat aplikatzeko, lehenbizikoa gogortu arte itxaron behar da. Geruzen arteko itsaspina errazteko, behar adinako zimurtasuna lortu behar da aurrekoa urratuz.
- Paramentu horizontal eta bertikalen loturetan, lotura 10 mm inguruko lodieraraino zabaltzea, soberakinak kenduz.

Gogortzea

- Zementuzko edozein mortero bezala, produktu hau deshidratazio goiztiarretik babestu behar da, haizearen, zuzeneko eguzkiaren eta abarren eraginez. Babesteko ohiko metodoak erabili behar dira, hala nola arpilatzaile hezeak, polietilenoazko xafiak edo ontzeko produktu egokiren bat.
- Eguraldi hotzarekin, konpondutako gainazala izoztuetatik babestu behar da.

Bezeraari arreta emateko zerbitzu teknikoa

- Produktuak aukeratzeari, erabiltzeari edo aplikatzeari buruz zalantzarik izanez gero, kontsultatu alde aurretik gure bezeraoren arretarako zerbitzu teknikoarekin.
- Produktu berezi bat behar baduzu, gure bezeraoren arretarako zerbitzu teknikoak zure zehaztapenak zehazten lagunduko dizu, eta zure beharretara ondoen egokitzen dena garatuko du.

Oharrak

- Gure aplikazio-aholkularitza teknikoa, dela hitzekoa, dela idatzizkoa, dela saiakuntzen bidezkoa, gure jakintza eta ulermen leialaren arabera egiten da, baina KONPROMISORIK GABEKO adierazletzat baino ez dira hartu behar. Obran bertan esku hartzerik ez dagoenez, informazio horiek BIKAIN inola ere arriskuan jartzen ez duten ohar orokorrak dira.
- Fitxa teknikoak ezin ditu islatu material baten erabileran esku hartzen duten aplikazio eta faktore guztiak. Horrela, fitxa honetan deskribatzen ez diren kokapenen aurrean, gure zerbitzu teknikoarekin kontsultatzea edo aurretiko froga bat egitea gomendatzen dugu, egokia den egiaztatzeko.
- Erabiltzeko moduaren jarraibideak gure saiakuntzen eta ezagutzen arabera egiten dira, eta kontsumitzailea ez dute produktuen azterketatik edo egiaztapenetik askatzen, behar bezala erabiltzeko. Beraz, produktua erabili aurretik, erabili behar duenak zehaztu beharko du ea aurreikusitako erabilerarako egokia den ala ez, produktua erabiltzeak sor dezakeen erantzunkizuna bere gain hartzen baitu. BIKAIN-en erantzunkizuna erabilitako salgaiaren baliora mugatuko da.
- BIKAIN enpresak, kalitate-sistemetan UNE EN-ISO 9001 Arauaren eskakizunen arabera erregistratutako enpresak, bere produktuak kalitate-laboretegiak kontrolatu dituela eta fitxa teknikoetan deskribatutako ezaugarriei bat datozela bermatzen du.

2025eko iraila